cristina enea

FUNDAZIOA

# AGENDA 2026

## UDA
## VERANO

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



# Ekaina Junio

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | 02 | 03 | 04 | 05 | 06 | 07 |
| 08 | 09 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17<br>**Elkarrekin anai-arrebak garelako**<br>Juntos porque somos hermanos | 18 | 19 | 20 | 21 |
| 22 | 23<br>**Natura ere bagara**<br>También somos naturaleza | 24 | 25 | 26<br>**Ura besterik ez**<br>Esto es solo agua | 27<br>**Paper artea: Uliako liburuxka** | 28 |
| 29 | 30 | | | | | |

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIÓNES
**HITZALDIAK** CONFERENCIAS
**IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
**ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
**IRTEERAK** SALIDAS
**BESTEAK** OTROS

# **Uztaila** Julio

**01**

**02**

**03**

**Tinglaua**

Cariño, he encogido a los niños

**04**

**05**

**06**

**07**

**Ongi etorri Natur Txokora!**

**08**

**Urgulleko koloreak**

**09**

**10**

El maquinista de la general

**11**

**Zuhaitz panpina**

**12**

Visitas guiadas a la exposición *Esto es solo agua*

**13**

**14**

**Urgulleko Hakoniwak**

**15**

**Sukaldaritza agroekologikoa familian**

**16**

**17**

Belle Époque

**18**

**Udako arte laborategia**
Laboratorio de arte de verano

**19**

**20**

**21**

**Piraten altxorraren bila**

**22**

**Ortzadarrak zintzilik**

**23**

**24**

**25**

**26**

**27**

**28**

**Babesten duten loreak: eguzkilore tailerra**

**29**

**Baso txiki sorgindua**

**30**

**31**

---

- **ERAKUSKETAK** EXPOSICIÓNES
- **HITZALDIAK** CON-FERENCIAS
- **IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
- **ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
- **IRTEERAK** SALIDAS
- **BESTEAK** OTROS

# **Abuztua** Agosto

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 01 | 02 |
| 03 | 04<br>Baso txiki sorgindua | 05<br>Lorez lore erleak ere | 06 | 07 | 08 | 09 |
| 10 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 |
| 17 | 18<br>Urgull familian deskubritzen | 19<br>Kattalin bidaiaria | 20 | 21 | 22 | 23 |
| 24 | 25<br>Hondarrezko eskulturak | 26<br>Uzta festa | 27 | 28 | 29 | 30 |
| 31 | | | | | | |

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIÓNES
**HITZALDIAK** CONFERENCIAS
**IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES
**ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES
**IRTEERAK** SALIDAS
**BESTEAK** OTROS

# **Iraila** Septiembre

01

02

03

04

**Pleamar programa: arrantzaren eta akuikulturaren iraunkortasuna sustatuz**
Programa Pleamar: impulsando la sostenibilidad de la pesca y acuicultura

05

06

07

08

09

10

11

12

Visita a la presa de Añarbe y su hermoso entorno

13

Baño de bosque en Ulia

Visitas guiadas a la exposición *Esto es solo agua*

14

Ecofeminismo y Derechos de la Naturaleza

15

16

17

18

19

20

21

22

23

24

25

**Urumeako Atlas Emozionala**
Atlas Emocional del Urumea

26

**Parketik parkera: Santa Klara**

27

De parque a parque: Santa Clara

28

29

30

**ERAKUSKETAK** EXPOSICIÓNES

**HITZALDIAK** CONFERENCIAS

**IKASTARO ETA TAILERRAK** CURSOS Y TALLERES

**ZIKLO ETA PROIEKZIOAK** CICLOS Y PROYECCIONES

**IRTEERAK** SALIDAS

**BESTEAK** OTROS

# **OHARRA** AVISO

Gure jardueretan plazen erabilgarritasuna bermatzeko eta erreserbak gauzatzeko helburuarekin, Cristina Enea Fundazioak fidantza-sistema bat ezarri du agenda honetako jarduera jakin batzuetan. Fidantza hori jarduerara etortzen diren pertsonei itzuliko zaie jarduera amaitutakoan. Hala ere, egoera hau aprobetxatu nahi dugu ingurumenarekiko sentsibilitate berezia erakusten duten establezimenduetan kontsumoa sustatzeko, produktu ekologikoak, sasoikoak, bertakoak edota bigarren eskukoak salduz. Saretuz Sarea www.saretuz.eus osatzen dutenak dira.

Horrela, gure aletxoa eman nahi dugu, kontsumo arduratsua eta tokiko ekonomia sustatzeko.

Horregatik, fidantza deskontubonu gisa itzuliko da, adierazitako establezimenduetako edozeinetan trukatzeko.

Con el objetivo de garantizar la disponibilidad de plazas en nuestras actividades y que las reservas se lleven a cabo, Fundación Cristina Enea ha adoptado un sistema de fianza en determinadas actividades de esta agenda. Dicha fianza se devolverá a las personas que hayan acudido a la actividad una vez ésta finalice. Sin embargo queremos aprovechar esta situación para fomentar el consumo en establecimientos que muestran una especial sensibilidad por el medio ambiente vendiendo productos ecológicos, de temporada, locales y/o de segundamano, y que son aquellos que se integran la Red Saretuz www.saretuz.eus

Queremos de esta manera aportar nuestro granito de arena para impulsar el consumo responsable y la economía a escala local.

Por ello, la fianza se devolverá como un bono descuento para ser canjeado en cualquiera de los establecimientos indicados.

# Elkarrekin anai-arrebak garelako
# Juntos porque somos hermanos

**Erakusketa honekin, Aldeas Infantiles SOS elkarteak familietatik urrun hazten diren anai-arreba guztiei omenaldia egin nahi die, eta mundu osoko milaka haurri eragiten dien errealitate isilduari aurpegia jarri. Erakundeak, elkartuta egoteko eta haurrak partekatzeko eskubidea eskatzen die. Aldeas Infantiles SOS elkarteak hirurogeita hamar urte baino gehiago daramatza elkarrekin egoteko zailtasunak dituzten familiei laguntzen eta, haurrek gurasoekin jarraitzerik ez badute, erakundeak etxe berri bat eskaintzen die eta behar duten maitasuna, segurtasuna eta babesa ematen die, anai-arrebak elkarrekin egon daitezen eta familiekin lan egiten saiatuz, gurasoak eta seme-alabak berriro elkarrekin egon daitezen.**

Con esta exposición, Aldeas Infantiles SOS quiere rendir homenaje a todos los hermanos y hermanas que crecen lejos de sus familias, y poner rostro a una realidad silenciada que afecta a miles de niños y niñas en todo el mundo. La organización reclama para ellos el derecho a mantenerse unidos y a compartir su infancia. Aldeas Infantiles SOS lleva más de setenta años acompañando a las familias que atraviesan por dificultades a mantenerse unidas y, en el caso de que los niños y las niñas no puedan seguir con sus padres, la organización les ofrece un nuevo hogar y les brinda el cariño, la seguridad y la protección que necesitan, procurando que los hermanos permanezcan unidos y trabajando con las familias para que padres, madres, hijos e hijas puedan volver a estar juntos.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



ALDEAS INFANTILES SOS

# **Ura besterik ez** Esto es solo agua

**Erakusketa honek ikusezina dena ikustera gonbidatzen zaitu; bai eta edertasunaren atzean naturarekin partekatzen dugun ordena aurkitzera ere; ibiltzerakoan sentituko duzun esperientzia zuzenaren bidez aurkitzera gonbitea luzatzen dizugu. Roberto Chartam artistak naturaren oinarria diren printzipio matematikoak lerro bihurtzen ditu airean geometriak marrazteko: Urrezko proportzioa, Fibonacciren sekuentzia edo Pi zenbakia... distantzia, tentsio eta elkargune bihurtzen dira hemen. Ez duzu formularik ikusiko, baina haren eragina sentituko duzu. Mugitzen zarenean, zure begien aurrean geometriak aldatu egingo dira, adar bat, olatu bat edo espiral bat naturan begiratzen dituzun lekuaren arabera ezberdin ikusten diren bezala.**

Esta exposición te invita a ver lo invisible; a percibir que detrás de la belleza hay un orden que compartimos con la naturaleza; a descubrirlo a través de la experiencia directa de caminar y dejarte envolver por él. Roberto Chartam traduce principios matemáticos en líneas con las que dibuja en el aire la geometría que sostiene la naturaleza: la Proporción áurea, la Secuencia de Fibonacci o el número Pi se convierten aquí en distancias, tensiones y encuentros. No verás fórmulas, pero sí sentirás su efecto. Al moverte, las geometrías cambiarán ante tus ojos, igual que en la naturaleza una rama, una ola o una espiral varían en función del lugar desde el que las mires.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



# Tinglaua

**Udari ongi etorria emateko, naturako elementuekin sortutako txotxongiloen erakusketa interaktiboa izango dugu. TINGLAUA objektuen antzerki-instalazioa da, eta bisitatzen duten pertsonak libre sentitzen dira kuxkuxeatzeko, manipulatzeko, jolasteko, inprobisatzeko... Pase gidatuak egongo dira. Zatoz eta animatu bizia ematera!**

Para dar la bienvenida al verano tendremos una exposición interactiva de marionetas creadas con elementos de la naturaleza. TINGLAUA es una instalación teatral de objetos en la que las personas que la visitan se sienten libres para curiosear, manipular, jugar, improvisar… Habrá pases guiados. ¡Ven y anímate a experimentar!

**Ordutegi orientatiboak aforoaren arabera** I Horarios orientativos segun aforo

03: 17:00 I 17:40 I 18:15

04: 11:00 I 11:45 I 12:30 I 13:15 I 17:00 I 17:40 I 18:15

05: 11:00 I 11:45 I 12:30 I 13:15

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



# **Pleamar programa** Programa Pleamar

**Itsas ekosistemak babesteko eta arrantzaren eta akuikulturaren iraunkortasuna bultzatzeko arloan lortutako emaitzak eta aurrerapenak herritarrei hurbiltzea da Erakusketa honen helburua, Pleamar Programaren esparruan Europako funtsen kofinantzaketari esker egin dena. 2017tik Fundación Biodiversidad erakundeak Pleamar Programa bultzatzen du, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioko Arrantzako Idazkaritza Nagusiarekin lankidetzan. Egitasmo honek arrantza- eta akuikultura-sektoreari laguntzeko helburua du, haren jardueren jasangarritasuna indartzeko eta itsasoko biodibertsitatea babesten, kontserbatzen eta lehengoratzen laguntzeko.**

**Aukeratutako 20 proiekturen argazki-ibilbidearen bidez diseinatu da erakusketa, eta ahalik eta elementu gehien birziklatzeko eta berreskuratzeko irizpidetan oinarrituta sortu da. Horiei sortuberriko elementu batzuk gehitu zaizkie, betiere material birziklagarriak eta ingurumena errespetatzen dutenak erabiliz. Panel bakoitzak, euskarazko eta gaztelaniazko informazioaz gain, braille hizkuntzako bertsio bat du, eta horrek erakusketa irisgarri bihurtzen du.**

Esta exposición busca acercar a la ciudadanía los resultados y avances realizados en materia de preservación de los ecosistemas marinos y de impulso de la sostenibilidad pesquera y acuícola, gracias a la cofinanciación de los fondos europeos, en el marco del Programa Pleamar. El Programa Pleamar es una iniciativa que impulsa desde 2017 la Fundación Biodiversidad, en colaboración con la Secretaría General de Pesca del Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, con el objetivo de apoyar al sector pesquero y acuícola para reforzar la sostenibilidad de sus actividades y contribuir a la protección, conservación y restauración de la biodiversidad marina.

La muestra consiste en un recorrido fotográfico a través de las imágenes de 20 proyectos seleccionados y se ha construido en base a premisas de reciclaje y recuperación del máximo número de elementos, a los que se añaden algunos elementos de nueva fabricación, usando siempre materiales reciclables y respetuosos con el medio ambiente. Cada panel, además de información en castellano y euskera, cuenta con una versión en lenguaje braille lo que la convierte en una muestra accesible.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea




Cofinanciado por la Unión Europea
Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación
Fondos Europeos
Pleamar

# Urumeako Atlas Emozionala
# Atlas Emocional del Urumea

**Urumea inguruan bizi diren pertsona askok bizkarrezur likido honen ertzean bizitako pasadizoak, bizipenak eta esperientziak partekatzeko aukera izan dute. Horrela, Urumeako Atlas Emozionala sortu da, hamar ibaiadar sentimentalez osatua, beste hainbeste talde tematiko biltzen dituztenak. Ekimen honen emaitzak erakusketa-proiektu batean bildu eta zabaltzen dira, kode artistikoetatik kontatuta, gure ibaiarekin berriz konektatu nahi gaituztenak.**

Muchas de las personas que viven y conviven en las cercanías del Urumea han tenido la oportunidad de compartir anécdotas, vivencias y experiencias vividas a orillas de esta columna vertebral líquida. Se ha construido así el Atlas Emocional del Urumea, integrado por diez afluentes sentimentales que recogen otros tantos grupos temáticos. Los resultados de esta iniciativa se recogen y amplían en un proyecto expositivo, narrado desde los códigos artísticos, que buscan reconectarnos con nuestro río.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea



14 **IRAILA** SEPTIEMBRE

EU | **ES**

9:00

**HITZALDIAK**
CONFERENCIAS

# Ecofeminismo y derechos de la Naturaleza

**Calcuta Ondoan GKEak bere bigarren aurrez aurreko topaketa antolatuko du Cristina Enean. Egun osoko jardunaldia izango da, Naturaren Eskubideen inguruan hausnartu, partekatu eta sakontzeko, ikuspegi ekofeminista batetik.**

**Gai honetan erreferente eta inspirazio-iturri diren hiru emakume izango ditugu gurekin: Yayo Herrero, Teresa Vicente eta Marina Gros. Bakoitzak bere esperientzia, ezagutza eta ikuspegia eskainiko ditu topaketa eta ikaskuntza kolektiborako gune hau aberasteko. .**

Calcuta Ondoan celebrará en Cristina Enea su segundo encuentro vivencial: una jornada completa para compartir, reflexionar y profundizar en los Derechos de la Naturaleza desde una mirada ecofeminista.

Contaremos con la participación de tres mujeres referentes e inspiradoras: Yayo Herrero, Teresa Vicente y Marina Gros. Cada una aportará su experiencia, conocimiento y visión para enriquecer este espacio de encuentro y aprendizaje colectivo.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



# Udako arte laborategia
# Laboratorio de arte de verano

**Naturan inspiratutako tailer artistikoa. Urtaro bakoitzak eskaintzen dizkigun elementuak baliatuko ditugu gure obrak sortzeko. Udaran linograbatzearekin esperimentatuko dugu. Ikurren bidezko estanpazioaren teknikak duen prozesua ezagututuko dugu, eta pausoz-pauso gure irudiak zizelkatu eta inprimatu ahal izango ditugu.**

Taller artístico inspirado en la naturaleza, en el que aprovecharemos los elementos que nos ofrecen cada una de las estaciones del año para crear nuestras obras. En verano experimentaremos con el linograbado. Conoceremos el proceso de la técnica de estampación con sellos, y podremos esculpir e imprimir paso a paso nuestras propias imágenes.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

**FIDANTZA** FIANZA: **2 €**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



# UDAKO INGURUMEN-ZINEMA ZIKLOA PARKEAN

## CICLO DE CINE AMBIENTAL DE VERANO AL AIRE LIBRE

**Cristina Enea parkeak aurten 100 urte bete ditu parke publiko gisa. Horregatik, aurtengo aire libreko zine-zikloak berezitasun bat izango du: emanaldi guztiak Cristina Enean izango dira, mendeurren berezi hori ospatzeko.**
**Filmek landuko dituzten gaiei dagokienez, parkeak, lorategiak eta duela mende bateko giro eta egoerak jasoko dituzten luzemetraien hautaketa egin da.**

El parque de Cristina Enea cumple este año 100 años como parque público. Por eso, el ciclo de cine al aire libre de este año tendrá una particularidad: todas las proyecciones serán en Cristina Enea, para celebrar este especial centenario.
En cuanto a los temas que abordarán las películas, se ha realizado una selección de largometrajes en el que los protagonistas serán los parques y jardines, y los ambientes y situaciones de hace un siglo.



# Cariño, he encogido a los niños

**Joe Johnston, 1989. 100 min.**

**Wayne Szalinski zientzialari eta asmatzaile bat da, objektuen tamaina txikitzeko makina bat eraikitzen duena. Beisboleko pilota batek halabeharrez aktibatzen du makina bere seme-alaben gainean, eta benetako abentura biziko dute lorategiko soropila etxeraino zeharkatu nahian, orain haientzat benetako "oihan" bihurtua.**

Wayne Szalinski es un científico e inventor que desarrolla una máquina que permite encoger el tamaño de los objetos. Una pelota de béisbol activa accidentalmente la máquina sobre sus hijos, que vivirán una auténtica aventura intentando atravesar el césped del jardín hasta la casa, convertido ahora en una auténtica "jungla" para ellos.

**LEKUA** LUGAR: **Cristina Enea parkea** Parque de Cristina Enea



# El maquinista de la general

## Buster Keaton, Clyde Bruckman, 1926. 100 min.

**Johnny Gray (Buster Keaton) Hegoaldeko estatu bateko tren-gidaria da, eta bi maitasun handi ditu: neska bat (Anabelle Lee) eta tren-makina bat (The General). 1861ean, Sezesio Gerra hasi zenean, Johnny izena ematen saiatu zen, baina armadak uste du baliagarriagoa izango zela atzeragoardian lan egitea. Anabellek, ordea, koldarra dela uste du, eta baztertu egiten du. Makinistak bere benetako balioa frogatu ahal izango du linea konfederatuetan infiltratutako komando nordista batek "The General" lapurtu eta Anabelle bahitzen duenean. Johnnyk ez du zalantzarik izango une batez beste tren-makina batera igo eta yankien atzetik joateko bere bi maiteak berreskuratzeko.**

Johnny Gray (Buster Keaton) es maquinista en un estado del Sur y tiene dos grandes amores: una chica (Anabelle Lee) y una locomotora (La General). En 1861, al estallar la Guerra de Secesión, Johnny intenta alistarse, pero el ejército considera que será más útil trabajando en la retaguardia. Sin embargo, Anabelle cree que es un cobarde y lo rechaza. El maquinista sólo podrá demostrar su auténtico valor cuando un comando nordista infiltrado en las líneas confederadas le robe "La General" y rapte a Anabelle. Johnny no dudará un segundo en subirse a otra locomotora y perseguir a los yanquis para recuperar a sus dos amadas.

**LEKUA** LUGAR: **Cristina Enea parkea** Parque de Cristina Enea



22:30

# Belle Époque

**Fernando Trueba, 1992. 108 min.**

**1931ko negua. Fernandok armadatik ihes egitea erabakiko du eta landetxe batean babestuko da. Bertan, Manolo margolari xelebreak harrera ona egingo dio, bere ideia politikoen ondorioz erretiratuta bizi baita. Mutilak harremanak ditu bere babeslearen lau alabekin (Rocio, Violeta, Clara eta Luz), eta ez daki oso ondo zeinekin dagoen maiteminduta.**

Invierno de 1931. Fernando decide desertar del ejército y se refugia en una casa de campo, donde es bien acogido por Manolo, un pintor excéntrico que vive retirado debido a sus ideas políticas. El chico mantiene sucesivamente relaciones con las cuatro hijas de su protector (Rocío, Violeta, Clara y Luz), sin saber muy bien de cuál de ellas está enamorado.

**LEKUA** LUGAR: **Cristina Enea parkea** Parque de Cristina Enea



# Visitas guiadas a la exposición *Esto es solo agua*

***Ura besterik ez*** **erakusketak ikusezina dena ikustera gonbidatzen zaitu; bai eta edertasunaren atzean naturarekin partekatzen dugun ordena aurkitzera ere; ordena horren baitan ibiltzerakoan sentituko duzun esperientzia zuzenaren bidez aurkitzera gonbitea luzatzen dizugu.Roberto Chartam artistak naturaren oinarria diren printzipio matematikoak lerro bihurtzen ditu airean geometriak marrazteko: Urrezko proportzioa, Fibonacciren sekuentzia edo Pi zenbakia… distantzia, tentsio eta elkargune bihurtzen dira hemen. Ez duzu formularik ikusiko, baina haren eragina sentituko duzu. Mugitzen zarenean, zure begien aurrean geometriak aldatu egingo dira, adar bat, olatu bat edo espiral bat naturan begiratzen dituzun lekuaren arabera ezberdin ikusten diren bezala. Chartamek bisita gidatua eskainiko bere erakusketan zehar eta bisitariek xehetasun eta azalpen guztiak jasotzeko aukera izango dute.**

La exposición *Esto es solo agua* te invita a ver lo invisible; a percibir que detrás de la belleza hay un orden que compartimos con la naturaleza; a descubrirlo a través de la experiencia directa de caminar y dejarte envolver por él.
Roberto Chartam traduce principios matemáticos en líneas con las que dibuja en el aire la geometría que sostiene la naturaleza: la Proporción áurea, la Secuencia de Fibonacci o el número Pi se convierten aquí en distancias, tensiones y encuentros. No verás fórmulas, pero sí sentirás su efecto. Al moverte, las geometrías cambiarán ante tus ojos, igual que en la naturaleza una rama, una ola o una espiral varían en función del lugar desde el que las mires. Chartam ofrecerá una visita guiada por su exposición, donde las personas que participen podrán trasladar al artista sus cuestiones y reflexiones.

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



10:00 > 14:00

# Visita a la presa de Añarbe y su hermoso entorno

**Bisita honetan Gipuzkoako biztanleriaren % 44 urez hornitzen duen Añarbeko urtegiaren azpiegiturak eta bertan egiten diren maniobrak ezagutuko ditugu. Azpiegitura horiek klima-aldaketaren ondorioei nola aurre egiten dieten jakingo dugu, arro hidrografikoa kontserbatuz ur-hornidurako sistema horien erresilientzia handitzeko. Gainera, bertatik bertara gozatu ahal izango dugu bertako ingurune ederraz, eta hobeto ezagutu ahal izango dugu natura- eta paisaia-balio handiko espazio hori. Añarbeko Urak-ekin lankidetzan antolatutako jarduera.**

En esta visita descubriremos las instalaciones y las maniobras que se efectúan en la presa de Añarbe que abastece de agua al 44% de la población de Gipuzkoa. Conoceremos cómo afrontan estas infraestructuras las consecuencias del cambio climático, conservando la cuenca hidrográfica para aumentar la resiliencia de estos sistemas de abastecimiento de agua. Además, podremos disfrutar de primera mano del precioso entorno que la rodea y conocer mejor este espacio de gran valor naturalístico y paisajístico. En colaboración con Aguas del Añarbe.

---

**ABIAPUNTUA: Renfeko Norteko geltokiaren aurreko markesinan**
PUNTO DE PARTIDA: Marquesina situada frente a la estación del Norte de Renfe

---

**ADINA** EDAD: **Helduak / familiak** Público adulto / familias

---

**FIDANTZA** FIANZA: **5€**

---

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



añarbe
urak aguas

**26** **IRAILA** SEPTIEMBRE | **EU** | ES | 11:00

**27** **IRAILA** SEPTIEMBRE | EU | **ES** | 11:00

# Parketik parkera: Santa Klara
## De parque a parque: Santa Clara

**Hiriko-parkeek funtsezko zeregina dute hirien eta bertako biztanleen ongizatean, berdeguneek lasaitzeko tokia eta naturaz gozatzeko aukera eskaintzen baitigute hormigoiz estalitako hirietan bizi eta lan egiten dugunoi. *Parketik parkera* ekimenak, Donostiako parkeak hobeto ezagutzera eta haietaz gozatzera gonbidatzen zaitu. Horretarako, irteera hauetan parke bakoitzaren historia ezagutu eta txokorik ederrenak esploratzeaz gain, familian jolasteko tartea ere izango dugu.**

Los parques urbanos juegan un papel fundamental en el bienestar de las ciudades y de sus habitantes, ya que zonas verdes nos permiten relajarnos y disfrutar de la naturaleza a quienes vivimos y trabajamos en ciudades cubiertas de hormigón. La iniciativa *De parque a parque* te invita a conocer mejor y disfrutar más de los parques donostiarras. Para ello, en estas salidas además de conocer la historia de cada parque y explorar sus rincones más bellos, también tendremos la oportunidad de jugar en familia.

**LEKUA: Irlako motora hartzeko pantalana. Kaiko san Pedro kaperaren parean**
LUGAR: Pantalán para coger la motora de la isla. Frente a la capilla de San Pedro del muelle

**ADINA: 4 eta 10 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzendutako ekintza**
EDAD: Actividad dirigida a familias con menores de 4 a 10 años

**FIDANTZA** FIANZA: **2€**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



# Urumeako Atlas Emozionala
# Atlas Emocional del Urumea

**Urumeako Atlas Emozionala herritarrek Urumea ibaiarekin duten harremana aztertzen duen lankidetza-proiektua da, oroitzapenen, emozioen eta bizipenen bidez. Cristina Enea Fundazioak bultzatuta, Donostia Kultura, Tabakalera eta Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzarekin, atlas honek ibaiaren erretratu kolektiboa eraiki nahi du, Donostiaren nortasunaren funtsezko zati gisa. Urumeak gure historia, gure oraina eta ingurunearekiko lotura nola markatu duen erakusten duen lekukotasun bizia.**

El Atlas Emocional del Urumea es un proyecto colaborativo que explora la relación de la ciudadanía con el río Urumea a través de recuerdos, emociones y vivencias. Impulsado por Fundación Cristina Enea, con el apoyo de Donostia Kultura, Tabakalera y la Sociedad de Ciencias Aranzadi, este atlas busca construir un retrato colectivo del río como parte esencial de la identidad de Donostia. Un testimonio vivo de cómo el Urumea ha marcado nuestra historia, nuestro presente y nuestra conexión con el entorno.



URUMEA
ATLAS EMOZIONALA

# FruitOndoan

**Cristina Enea Fundazioak hiriko nekazaritzaren sustapenaren alde bere aletxoa jarri du Gipuzkoako bertako frutaarbolen lehen sarea sortuz, FruitOndoan, hiriko gune publikoetan, eta beti ere ikuspegi sozio-komunitario, parte-hartzaile eta agroekologiko batetik, nekazaritzaren eta hiriaren arteko zubiak eraikiz.**

Fundación Cristina Enea aporta su granito de arena al fomento de la agricultura urbana creando la primera red en Gipuzkoa de árboles frutales comunitarios en espacios públicos urbanos, FruitOndoan, siempre desde una perspectiva socio-comunitaria, participativa y agroecológica, tendiendo puentes entre el mundo agrario y la ciudad.



# Haziera. Hazien artxiboa
## Haziera. Archivo de semillas

**Haziak eta beren inguruko jakinduria zabaltzeko eta partekatzeko lekua da. Eskala txikiko nekazaritzari eusteko, eta landutako bioaniztasunaz kezkatzen diren pertsona eta erakundeentzako topagunea. Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean hazien artxibo honek landa munduari lehio bat irekitzen dio.**

Es un espacio de intercambio de semillas y de conocimientos. Un punto de encuentro entre personas y organizaciones que se interesan por la biodiversidad cultivada y por el mantenimiento de la agricultura a pequeña escala. El archivo de semillas del Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea abre una ventana al campo para reflexionar sobre la situación actual de la agricultura y la alimentación.

---

**LEKUA: Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxea**
LUGAR: Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina Enea

---



# ULIA INTERPRETAZIO ZENTROA

## CENTRO DE INTERPRETACIÓN DE ULÍA



# Natura ere bagara

## También somos naturaleza

**Gipuzkoako hiru ikastetxetan ikaskuntza ikasgelako hormetatik harago zabaldu da. Urnietako Salesianos-Magale ikastetxeko DBH 4ko biologiako ikasleekin, Tolosaldea LHIIko landa inguruneko eta aisialdiko gidaritza erdi mailakoekin, eta Easo Politeknikoko Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola goi mailakoekin, ingurumenaren egoeraren inguruan pentsatzeko eta sentitzeko gune bat ehundu dugu. Erakusketa honetan, hausnarketak esperientziarekin bat egin duen bide honetan bizitakoan oinarriturik eginiko artelanak ikusi ahal izango ditugu.**

En tres centros educativos de Gipuzkoa el aprendizaje se abre paso más allá de las paredes del aula. Con el alumnado de 4º de la ESO de Salesianos-Magale de Urnieta, del grado medio de guía en el medio natural y tiempo libre Tolosaldea LHII, y del grado superior de Educación y Control Ambiental del Easo Politécnico, hemos tejido un espacio donde pensar y sentir sobre la situación ambiental que vivimos.
En esta exposición se podrán ver las obras creadas en base a lo vivido y aprendido en este espacio donde la reflexión camina de la mano de la experiencia.

**LEKUA: Ulia Interpretazio Zentroa**
LUGAR: Centro de Interpretación de Ulía




CALCUTA ONDOAN

11:30

# Paper artea: Uliako liburuxka

**Uliatik ibilbide bat egin eta irudikatuko dugu, aurkitutako elementuak eta paperak moztuz eta marraztuz. Gure irudimena erabiliz, bertako biztanleen gure istorio gustukoena jasoko duen liburuxka sortuko dugu.**

Vamos a hacer e imaginarnos un recorrido por Ulia y con los materiales encontrados, y pintando y recortando papeles, realizaremos un bonito libro en el que representaremos las historias de nuestros personajes preferidos de Ulia.

**LEKUA: Ulia Interpretazio Zentroa**
LUGAR: Centro de Interpretación de Ulía

**ADINA** EDAD: **+5 urte** años

**FIDANTZA** FIANZA: **2€**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



11:30

# Zuhaitz panpina

**Zer da, makil bat edo agian hanka bat? Buru bat? Basoak ematen dizkigu pertsonaia desberdinak sortzeko behar dugun materiala eta inspirazioa. Taun Tauneko lagunek badakite nola eman hauei bizia eta beraien laguntzarekin aukera desberdinak ezagutu eta gure txotxongilo propioa egiteko aukera izango dugu.**

¿Qué es, un palo o una pata? ¿Tal vez una cabeza? El bosque nos ofrece los materiales y la inspiración necesaria para crear distintos personajes. En Taun Taun teatro saben cómo darles vida. Con su ayuda conoceremos las distintas opciones y podremos construir nuestra propia marioneta.

**LEKUA: Ulia Interpretazio Zentroa**
LUGAR: Centro de Interpretación de Ulía

**ADINA** EDAD: **+7 urte** años

**FIDANTZA** FIANZA: **2€**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



# Baño de bosque en Ulia

**Basoa leku bat baino gehiago da. Basoaren onurak zenbaezinak dira. Elikadura, klimaren erregulazioa ur garbia edukitzea eta ez hori bakarrik, gure osasuna ere estuki loturik dago naturarekin dugun harremanarekin. Horregatik, basoa zaintzearekin batera gure burua ere zaindu dezakegu, eguneroko zurrunbilotik atera eta lasaitasun pixka bat bilatuz. Horretarako, Japonian jada aspaldi erabiltzen diren sirinyoku edo baso bainuak probatzeko aukera izango dugu, zentzumenak esnatu eta egunerokotasunak sortzen digun estresa atzean uzteko.**

El bosque es más que un lugar. Los beneficios del bosque son innumerables. La alimentación, la regulación del clima,purificación del agua… y no sólo eso, nuestra salud también está íntimamente ligada a nuestra relación con la naturaleza. Por eso, cuidando el bosque también nos cuidamos, saliendo de la inercia diaria y buscando un poco de tranquilidad. Para ello, tendremos la oportunidad de probar la técnica de sirinyoku o baño de bosque que ya se utilizan hace tiempo en Japón para despertar los sentidos y dejar atrás el estrés que nos genera el día a día.

**LEKUA** LUGAR: **Uliako aparkalekua** Aparcamiento de Ulía

**FIDANTZA** FIANZA: **5€**

**IZENA EMATEA BEHARREZKOA DA** ES NECESARIO INSCRIBIRSE: **www.cristinaenea.eus**



Argazkia / Foto: plus 55



# NATUR TXOKO

URGULL

01 UZTAILA JULIO > 31 ABUZTUA AGOSTO

—

**Astelehenetik igandera: 11:00>14:00 / 16:00>19:00**
De lunes a domingo: 11:00>14:00 / 16:00>19:00

—

**Jarduera bereziak: Astearte eta asteazkenak > 17:00**
Actividades especiales: Martes y miércoles > 17:00

**Urgullen dagoen Natur Txokoa, naturaren gela berezia da. Bere helburua da ingurumen-aberastasun handia duen kokagune historiko honetatik naturarekiko errespetua sustatzea, aisialdiko jarduera didaktikoen bidez. Astearte eta asteazkenetan arratsaldeko 17:00etan jarduera bereziak izango ditugu Urgull mendia hobeto ezagutu eta naturaz gozatzeko. Gainontzeko egunetan Artisten Txokoa zabalik egongo da,bertan behar duzun material guztia izango duzu zure erritmora eskulanetan ibiltzeko.**

El Natur Txoko del monte Urgull es un aula de la naturaleza ubicado en un entorno histórico y natural privilegiado, y desde el que se promueve y fomenta el respeto por el medio ambiente a través de actividades lúdicas, didácticas y de ocio. Los martes y miércoles a las 17:00 de la tarde tendremos actividades especiales para conocer mejor el monte Urgull y disfrutar de la naturaleza. Resto de días El rincón del artista permanecerá abierto, donde encontrarás todo el material que necesites para hacer manualidades a tu aire.



**> Uztailak 7 - Ongi etorri Natur Txokora! [+3 urte]**

**> Uztailak 8 - Urgulleko koloreak [+3 urte]**

**> Uztailak 14 - Urgulleko Hakoniwak [+5 urte]**

**> Uztailak 15 - Sukaldaritza agroekologikoa familian [+5 urte]**

**> Uztailak 21 - Piraten altxorraren bila [+3 urte]**

**> Uztailak 22 - Ortzadarrak zintzilik [+5 urte]**

**> Uztailak 28 - Babesten duten loreak: eguzkilore tailerra [+5 urte]**

**> Uztailak 29 - Baso txiki sorgindua [+5 urte]**

**> Abuztuak 4 - Maren, Urgulleko zaindaria [+3 urte]**

**> Abuztuak 5 - Lorez lore erleak ere [+3 urte]**

**> Abuztuak 18 - Urgull familian deskubritzen [+5 urte]**

**> Abuztuak 19 - Kattalin bidaiaria [+3 urte]**

**> Abuztuak 25 - Hondarrezko eskulturak [+3 urte]**

**> Abuztuak 26 - Uzta festa [+3 urte]**

> 7 de Julio - Ongi etorri Natur Txokora! [+3 años]

> 8 de Julio - Colores de Urgull [+3 años]

> 14 de Julio - Los Hakoniwa de Urgull [+5 años]

> 15 de Julio - Cocina agroecológica en familia [+5 años]

> 21 de Julio - En busca del tesoro pirata [+3 años]

> 22 de Julio - Arco iris colgantes [+5 años]

> 28 de Julio - Flores protectoras: taller de eguzkilore [+5 años]

> 29 de Julio - El pequeño bosque embrujado [+5 años]

> 4 de Agosto - Maren, la guardiana de Urgull [+3 años]

> 5 de Agosto - De flor en flor como las abejas [+3 años]

> 18 de Agosto - Descubriendo urgull en familia [+5 años]

> 19 de Agosto - La viajera Kattalin [+3 años]

> 25 de Agosto - Esculturas de arena [+3 años]

> 26 de Agosto - Fiesta de la cosecha [+3 años]

cristina enea
FUNDAZIOA

Patronoak | Patronos

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro

Babesle iraunkorra | Colaborador permanente

añarbe
urak aguas

Mandasko Dukearen pasealekua, 66
20012 Donostia/San Sebastián
(+34) 943 45 35 26
cristinaenea@donostia.eus | www.cristinaenea.eus

**Ordutegia**
Astelehenetik ostiralera: 09:30 > 18:00*
Larunbata: 10:00 > 14:00 / 15:00 > 19:00
Igande eta jaiegunetan: 10:00 > 14:00
*Ekainak 1etik irailak 30era, 19:00 arte

**Horario**
Lunes a viernes: 09:30 > 18:00*
Sábado: 10:00 > 14:00 / 15:00 > 19:00
Domingos y festivos: 10:00 > 14:00
*Del 1 de junio al 30 de septiembre, hasta las 19:00